

Herri Aldizkaria

otomoto

2001eko ekaina 68. alea



2002an berriz elkartuko gara

Kilometroak 02 Urretxu-Zumarragan izango da

SAN JUANAK: ZUHAITZAREN INGURUAN FESTA HANDIA
ELKARRIZKETAK: ASIER OTAMENDI ETA JON ORMAZABAL
IZERDI PATSETAN: ZUMARRAGAKO KIROLDEGIKO MEDIKUNTZA ZENTRUA



**SUKALDE
ERAKUSKETA**



Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRET XU



Oraingo honetan duela 60 urte inguru ateratako argazkia duzue ikusgai.

Goialdean, ezkerretik eskubira: Tomasa Amilleta, Ignazia, Primi, Anuntxi Goenaga, Maria Larrañaga, Bittori, Miren Korta, Ana Maria Okariz eta Milagros Mazkieran.

Behealdean, ezkerretik eskubira: Tere Mendia, Anita Goenaga eta Elisa Urrestarazu.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

Antzerki Emanaldiaren lehen balorazioa

Maiatza osoan antzerki-azkenaldia gozatzeko aukera izan ondoren, ekaina heltzearekin batera Urretxu-Zumarragako Antzerki Emanaldia etenaldia egin du udazkenara arte. Aurreko urteetan astebetean biltzen zen egitaraua aurten ia urte osoan luzatzera pasatu da, baina Kultur Etxeko teknikarien esanetan "jendeak aurreko urteetan bezain ondo erantzun du, nahiz eta aurten sarre- ren salneurriak igo ditugun".

Honen arrazoiak bi dira Miren Castillo eta Irene Calvillo teknikarien ustez "alde batetik, Urretxu eta Zumarragan oso ikusle onak ditugu eta bestetik, aurtengo eskaintza primerakoa izan da. Izan ere, formatua aldatu dugunez, argi genuen astero estatu mailan arrakasta izaten ari diren antzezlan ezagunak ekarri behar genituela jendeak etxean geratzeko tentazioa izan ez zezan".

Lau hilabeteko etenaldia- ren ondoren, urriaren 19an Traspasos taldearen "Pepe el romano" antzezlan ikus- teko aukera izango dugu eta azaroaren 16an Ados taldearen "Manolito Gafotas".

Ane Gabarain eta Ramon Agirre ere Pagoetan izan ditugu.



Ezustekorik ez badago, bi antzezlan hauek Zelai-Arizti berrituan izango dira eta bonua duzuenok sarrera merkeago eskura- tu ahal izango duzue.


Aurtengo Antzerki Emanaldia

amaitu ez bada ere, bi herrietako kultur teknikariak datorren urtekoaren nondik- norakoak zehazten hasi dira jada eta esan digutenez "2002.rako asmoa hileroko Zelai- Ariztin antzezlan bat eskaintzea da".

Bi-Tarteanen logotipo berriaren eta txartelaren aurkezpena

Maiatzaren 24an Bi-tartean dendari elkarteak logotipo berria aurkeztu zuen. Logotipo berria aukeratzeko Bi-Tarteanek herriko ikastetxeetako ikasleei zabalik zegoen lehiaketa bat antolatu zuen eta Maitane Elgarresta eta Ane Rodriguezek egindako logotipoa izan da aho batez epaimahaikideek hautatu dutena.

Bestalde, logotipo berriaren aurkez- pen ekitaldian Bi-Tarteanek "punto oro" txar- tela ere aurkeztu zuen. Doakoa den txartel honen bidez Bi-tartean elkarteko dendetan egindako erosketak gehiengo sei hilabetetan ordain daitezke gehiago ordaindu beharrik gabe. Nahiz eta txartela Vanco de Vasconiarena izan, ez dago bere bezeroa izan beharrik txartela eskuratzeko. Txartel hone- kin merkataritza txikiak eroslearentzat dituen abantaila bat gehitzen zaie: ordaintzerako orduan erraztasunak izatearena.



La Salleko Astea

La Salle-Legazpi ikastetxeko ikasleek ez dute ez aspertzeko betarik izan azken aste hauetan. Izan ere, maiatzaren 14ko astean ekitaldiz gainezka izan zen La Salleren astea izan zuten eta hauetan guztietan bakarrik izan ez zitezten Baigorriko Bil-Etxea ikastetxeko lagunak izan zituzten beraiekin. Denek elkarrekin hainbat ekitalditan parte hartu zuten, hala nola, bi herriotako eta inguruotako leku esanguratsuetara bisitaldiak, jokopak, play-backak, dantzaldiak, antzerkia, merienda... eta beste hainbat. La Salleko astearen ospakizunak maiatzaren 18an bukatu eta hurrengo egunean baigorritarrak etxera itzuli baziren ere, ez ziren egun hartan bukatu La Sallekoen klasez kanpoko ekintzak. Izan ere, azken hilabeteotan lanean gogor jardun ondoren, maiatzaren 29a eta ekainaren 1a bitartean egunero "Oliver" antzezlan solidarioa antzetzutu dute ikastetxeko aretoan, guraso, ikasle eta lagunentzat.



La Salleko ikasleak Baigorriko lagunekin batera Antiora igo ziren arratsalde pasa.

Tabernariak euskaraz lanean: euskaraz bizitzeko hitzarmena

Lan munduak hein handi batean erderaz funtzionatzen du oraindik, eta gure hizkuntzak ezinbestekoa du hor sartzea. Lan munduan erabiltzen den hizkuntza izango da, azken finean, gizartean benetan erabilgarria eta prestigioa izango duena. Enpresetan euskaraz funtziona dezaketen sailen artean kanpo komunikazioarena dago, eta hor hornitzaileekiko harremanak daude.

Horretan egiten du lan Euskaraz Bizitzeko Hitzarmenak. E.B. Hitzarmenak egun 35 kide ditu, horietako bat UEMA da. Kideen artean mota guztietako enpresak daude (Euskaldunon Egunkaria, abokatuak, kultur taldeak, tabernak...). Orain arte, beste lan batzuen artean, kide hauen hornitzaileekin aritu da lanean.

Orain talde honek Euskal Herri mailako ostalaritza kanpaina antolatu du. Euskal Herriko taberna, jatetxe, jai batzorde eta abarrek hornitzaileei beraien arteko harremana euskaraz izatea nahi dutela adierazi ondoren, E.B.Hitzarmenekoek amankomunean dituzten hornitzaile eta zerbitzu emaileen zerrenda egin eta hornitzaile bakoitzaren euskalduntzea jarraituko dute. E.B. Hitzarmenak inplikaturako ostalarien indarra batuko du, horrela, hornitzaile bakoitzaren aurrean indartsu aurkezteko.

Ostalari eta euskaltzale zaretenok aukera paregabea duzue zeulon lanbidean euskarak dituen aukerak aprobetxatu eta aukera berriak sortzeko. Proiektu honen argibide gehiago nahi izanez gero dei ezazu zuzenean E.B.Hitzarmenera (944151175).

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Zuberotarrei ongi etorria

Asteburu honetako Zuberotarren bisitaldiak eta Gernikako Arbolako jaialdiak amaiera emango diote herriko hainbat taldek Zuberoa ezagutarazteko antolatutako "Biba Xiberua" ekimenari.

Azken hilabete eta erdian Zuberoara txangoak, erakusketa, hitzaldia... eta beste hainbat ekitaldi izan ditugu, baina asteburu honetakoak dira egitarauko ekitaldi nagusiak. Larunbata arratsaldean zuberotarrak Urretxu-

Zumarragara helduko dira eta ongietorriaren ostean hango dantzariak eta hemengoek kalejira egingo dute. Afalostean, berriz, jaialdi ikusgarria izango da Gernikako Arbola enparantzan. Bertan Zuberoako eta gure bi herriotako kantariak, dantzariak, bertsolariak eta txalapartariak euren onena emango dute.

Igandean zuberotarrek gure inguruko leku interesgarriak ezagutzeko aukera izango dute eta anaikidetasun baz-

kariaren aurretik kantu kalejira eskainiko dute taberna ezberdinen inguruan zuberotarrek eta Urretxu-zumarragarrek osatu duten musika taldeak. Bazkalostean agurra eskainiko zaie eta betirako anaikidetasun besarkada izango da.

Asteburu honetan, beraz, Euskal Herriko sei herrialdeetako bat izanik ezegunegia zaigun Zuberoa pixka bat hobeto ezagutzeko aukera bikaina dugu. Ea ez dugun alferrik galtzen uzten!

Ikastolako haurren erakusketa

Urteroko legez, Ikastolako ikasleek askotan beste erabilpen bat topatzen saiatu baino lehen zakarontzira bota ohi ditugun hainbat tresna birziklatuz egindako eskulanean erakusketa izan da ikusgai Juan de Lizarazu aretoan. Erakusketa honekin, Ikastolako ikasleen helburua bertatik pasatu direnak birziklaketaren garrantziaz ohartaraztea izan da eta Juan de Lizarazun ikusgai izan diren lan orijinalak ikusleak txundiaraztea lortu dute. Hala izanik, aurten ere Ikastolakoek zein La Salle ikastetxeek Sasieta Mankomunitateak antolatu ohi duen birziklatutako materialez egindako Kartel Lehiaketa irabazi dute.

Baina ez da hau Ikastolako ikasleek azkenaldian irabazi duten sari bakarra, Urruzuno Literatur Lehiaketan ere primeran aritu baitira. Batxilergoko lehen mailako Maite Arozenak "Aita, zer gerta-

tzen zaio munduari" lanarekin prosa arloko A mailan saria lortu du, DBH-4ko Paloma Quintanak eta Ainhoa Ugarteburuk prosa arloko B mailan saria lortu dute "Beste mundua ezagutzen" eta "Askatasun taupada" lanekin eta Amaia Lakak, berriz, poesia arloko B mailan lortu du saria "Zuhaitza" lanarekin. Guztiek 10 egun inguruko bidaia egiteko aukera izango dute irailaren azken aldera eta euren lanak Sagastiberri saileko liburu batean argitaratuko dira. Zorionak denei!

Juan de Lizarazu erakusketa aretoan izan dira ikusgai Ikastolako ikasleen lanak.



Iñaki Beitiaren Omenezko V. Mendi Martxak arrakasta itzela izan zuen

Maiatzaren 20an Iñaki Beitiaren Omenezko V. Mendi Martxa izan zen. Aurtengo edizioan antolatzaileak berak harritu dituen partaidetza eman da. Izan ere, nahiz eta egun berean beste hiru martxa antolatuta zeuden, gure bi herriotako eta Hego Euskal Herriko herrialde guztietatik etorritako 595 lagunek parte hartu dute aurtengoan (iaz baino 100 partaide gehiagok). Hauetatik 150 emakumezkoak izan ziren eta 445 gizonezkoak, helmuga-

ra, berriz, 500 lagun inguru heldu ziren.

52 kilometro zituen ibilbide luzea egiteko 202 lagunek eman zuten izena eta lehenengoek 6 ordu eta 25 minutu eskaxetan egin zuten ibilbidea. Ibilbidea lasterka egin zutenei Aizpurutxotik Etxetxikira zihoan bidezidorra ez zitzaien gehiegi gustatu, azken asteetan asunek eta sasiek bidea itxi zuten ez baitzuten jendea aurreratzeko aukerarik izan. Ibilbide motzean parte

hartu zuten 393 lagunak, berriz, oso gustura agertu ziren ibilbidearekin.

Partaidetza handiak ez zuen arazo berezirik sortu eta mendizale guztiek nahi adina janari eta edari aurkitu zuten anoa postuetan. Dena den, diplomak eta kamisetak agortu egin ziren, eta antolatzaileek hurrengo egunetan abisatuko diete diploma eta kamisetarik gabe gelditu zirenei noiz eta non jaso behar dituzten euren oroigarriak.

San Juan pilota txapelketaren azken txanpa

Goierrri K.E.ko pilota sailak antolatzen duen San Juanetako pilota txapelketaren azken kanporaketak jokatzeko ari dira hilabete honetan. Ostiral arratsalde eta larunbat goiz honetan final laurdenetako azken partidua jokatu dira, datorren asteburuan finalerdietakoak eta hilaren 23ko (larunbata) eguerdian finalak.

San Juanetako Pilota Txapelketa duela 15 urte ingurura arte afizionatu mailako pilotari onenak biltzen zituen Udaberri Txapelketan sortzen zen giro ona berreskuratzeko asmoz hasi ziren antolatzen iaz Goierriko pilota sailekoak. Bide batez, senior mailara pasatu behar zuten herriko pilotariei eta Euskal Herriko gainontzeko pilota taldeetako pilotariei jokatzeko aukera eskaintzea ere lortu nahi zen. Hori dela eta, edozein pilotarik izena eman dezake Urretxuko txapelketan (beste askotan gonbidapena behar da) eta aurtengo partaidetza zein ikusleen erantzuna ikusirik, bere helburua betetzen ari dela esan daiteke.

Izan ere, iaz jubenil mailako 50 pilotarik parte hartu bazuten, txapelketa izugarri hazi da eta aurtengo 187 pilotarik parte hartu dute. Hauetatik 63k gazte mailako eskuz banakako txapelketan parte hartu dute eta 124k senior mailako eskuz binakakoan. Txapelketa martxoaren 10ean hasi zen eta hilaren 23rako 130 partidu inguru jokatu dira (denak kanporaketak). Esan bezala, asteburu honetan final laurdenetako azken kanporaketak jokatu dira eta hauetan Goierriko pilota saileko hainbat partaidea ditugu: banakakoan Lasa II eta binakakoan Lasa I-Zabala, hain zuzen ere. Iaz eskuz banakako txapelketa irabazi zuen Julen Ormazabal ere beraiekin izan beharko litzateke, baina aurtengo eskuetatik

lazko eskuz-banakako txapelketa irabazi zuen Julen Ormazabal.



Argazkia: Aguado

gaizki dabil eta ezin izan du parte hartu. Ea laister osatzen den eta aurtengo ordezkariak iaz Julen bezain fin aritzen diren!


Dena den, ez dute lan erraza

etorkizuneko pilotari onenak herrian ikus-teaz gain, sari bikaina lortzeko aukera ere izango duze.

izango, sari bikainak banatzen dituen eta final zortzirenetatik aurrera partiduko dirusaria eskaintzen duen txapelketa irekia izanik Hego Euskal Herriko jubenil eta senior mailako pilotari onenak elkartu baitira San Juan txapelketan. Esan bezala, 130 partida inguru jokatu dira guztira eta hau guztia antolatzeko aurrekontu handia estali eta lan eskerga egin behar izan dute Goierri K.E.ko pilota sailekoek. Horretarako epaileen eta babesleen laguntza izan dute eta denei eskerrak eman nahi dizkiete. Alde batetik asteburu fin aritu diren Juanjo Andueza eta Antonio Hurtado epaileei eta bestetik Oximek, Odriozola autoeskola eta Egumendi babesle nagusiei zein gainontzekoei.

Nahiz eta hauen guztien laguntza izan, antolatzaileak dirua galtzen aterako direla uste dute, baina Udalaren laguntzaz eta partiduetan egiten den zozketan ateratako diruaz ahalik eta zulo txikiena egitea espero dute. Hilaren 23an jokatu diren finaletan zozketa berezia egin behar dute, beraz, badakizue finaletara joanez gero





Joxe Mari Gabiria

Hedonista kamuflatuak

Irakurtzea plazerrik haundienetakoa dela entzun izan dut askotan. Hori bai, ia beti idazleren baten ahotik. Izan ere, zertarako, zergatik idazten du idazleak? Bizimodua ateratzeko? Zorte apur batekin aberasteko? Famoso egin daitekeelako? Ezta pentsatu ere!!! Grina txarrak mendean hartutako "hedonista" delako idazten du, eta kitto! Berak, jakina, ez dizu horrelakorik aitortuko. Irakurleak plazerra senti dezan idazten duela esango dizu. Zugan ta nigan pentsatuta idazten ditu, beraz, erreportajeak, artikulak, liburuak; hala dio berak.


Gaur egun modan jarri baita norberak egiten duen hori besteentzat egina bailitzan azaldu nahia. Esate baterako, datorren igandeko derbya gipuzko-arrontzat hil edo bizikoa dela esango dizu futbolaria. Eta zuk, nik, guk... sinistu eta, agian, ederki sufritu ere bai garaipenik lortzen ez bada. Egunotan Italiako errepideetan korritzen ari diren euskal txirrindulariei entzungo diezu harro daudela, dabiltzan lekuan dabiltzala, euskal herritarron enbaxadore izateaz.

Horiek denak entzunda pentsa liteke gure kirolariak hain direla jende ona, jatorra eta solidarioa, zein gure mesedetan saiatzen dira golak sartzen edota karrerak irabazten. Norbere "egoa"

balentriaz kamuflatu nahi izatea esaten diot nik horri. Idazleak ere ederki asko daki kamuflaje lanean. Esate baterako, irakurtzea plazer emangarri dela dioenean. Gustura egotetik plazerra sentitzera tarte handi samarra dagoela erizten baitiot. Eta plazerra..., irakurtzeak baino, uste dut idazteak ematen duela plazerra.

Honako edo halako liburuetan idazleak bere barrua hustu egin duela esaten badizute, ez sinistu. Ez da egia eta. Berriro diot, idazleak plazerragatik idazten du; bereagatik, noski. Zuri, niri, guri, bereak irakurtzean ematen omen digun plazer hori bere larruan sentitzeagatik.

Barrua hustutzeak gehienez ere gustua ematen dio. Plazerra hori baino gehiago da, fisikoa neurri batean baina, aldi berean, espirituala ere bai. Batzuetan bapo kostatzen den arren, barrua hustu nornahik egin dezake. Idazlearena ez da barrua hustutzea, izkutuan dauzkanak erakustea baizik. Bere ideien erakuslea da idazlea. Izkutukoak erakusten dituenari exhibizionista deitzen zaio. Idazlea, beraz, exhibizionista da, bere zokorik izkutuenak erakusten dizkigulako. Eta, gainera, gustuz egiten ditu erakustaldi horiek. Arestian esan dudana: hedonista kamuflatu da.



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050


Fax: 764050 20570 BERGARA

“Biba Xiberua!” ekimenaren berri ba al duzu? Zer dakizu Zuberoaz?



Natalia Barbarin

Kartelak ikusi ditut eta baliteke antolatutako ekitaldiren batera joatea. Zuberoan egonda nago, bai Maulen bai mendian ere. Oso leku ederra da.



Luis Mari Larrañaga

Orainarte ez naiz antolatutako ekintzetara joan, baina gaurko hitzaldira joateko asmoa dut. Zuberoan izana naiz, bizikletan joan ginen behin eta herrialde ikusgarria da.



Jesus Mari Alberdi

Gaurko hitzaldira ezin naiz joan, baina datorren asteko jaialdira joateko asmoa dut. Zuberoa ezagutzen dut, asteburu pasa izana bainaiz (Atharratzen, Santa Engrazin...). Jendeak ez duela gehiegi ezagutzen iruditzen zait.



Maria Jesus Etxabe

Egunkariaren bitartez izan nuen “Biba Xiberua” ekimenaren berri eta beharbada erakusketara joango naiz. Ez naiz sekula Zuberoan izan, baina baliteke egunen batean joatea.



Marian Toledo

Ekimenaren antolaketan parte hartu dut eta merezi zuela uste dut. Azken urte hauetan maskarada eta pastoraletara joan naiz. Jendeak ez duela iparraldea ezagutzen, eta are gutxiago Zuberoa, iruditzen zait.



Alex Fernandez

Ez dut ekimenaren berri eta egia esan ez zait gehiegi interesatzen. Zuberoan ez naiz sekula izan eta eskolan hiriburua zein den ikasiko nuen arren, jada ahaztu dut.

BIONA
AROTEGIA
 Altzariak neurrira
 ☎ eta faxa: 72 02 55
 Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzailer:
 En la edición de esta publicación colabora:

fundazioa
fundación

EDURNE
JANTZIDENDA
 Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA

- Dietetika
 - Estetika
 Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros
 Enmarkatzeak
 Arte ederrak
 Dekorazioa
 Opariak
 Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Zuhaitzaren inguru

Ekainaren 23an eguna mozten hasten da, egunaren amaierarekin batera denok suaren inguruan elkartzen gara, eta biharamunean Santa Barbaraino igotzen gara San Juan eguna ospatzeko. Baina nork ezagutzen du festa honen jatorria? Nondik dator?

San Juanetako jaietan ohitura da Urretxuko Iparragirre plazan nahiz Santa Barbaran "San Juan Arbola" jartzea. Baina ohitura hau ez da soilik gurea, herri askotan egiten baita gauza bera. San Juanetan ezezik beste festa batzuetan ere zuhaitza jartzen dute, hala nola, San Isidrotan, San Pedroan, e.a...

Erromatarren ohitura dela uste da, eta dirudienez sinbologian udaberriarekin lotuta dago. Maiatzaren haseran izaten zen. Zuhaitzaren adar guztiak mozten zitzaizkion goikoak ezezik, eta antza denez lurra-
ren une oparoa gurtu
nahi izaten
zen.

Behetik gora doan arbola luze horrek, soroko fruituak ere behetik gora sor daitezten eskatzen duela dirudi, hots, udaberria emankorra eta aberatsa izan dadila gutz-tiontzat.

Paganoen ohitura, kristautasunean murgildu zen, eta horrenbesteko ospea hartu zuenez, beste jai batzuetara eraman zuten tradizioa, besteak beste San Juanetara, baina ez jatorriz hala delako, San Juanetan sua eta argia gurtzen baitira.

San Juan jaiek jakinmina piztu digutela eta, zuhaitzaren goiko puntan jartzen den lore-koroaren egilearen, Donardegi baserriko Juanito Elgarrestaren, inpresioak jaso ditugu erreportai honetan. Aurtengoa bere 42.garren lore-koroa izango da, ez da marka makala!

"Haurra nintzenean San

Juan eguna gaurko egunaren aldean, jai haundia zen. Bazeuden trikitilariak, txistulariak, eta horrek garai hartan zerbait suposatzen zuen, lehen ez baizegoen irratirik etxe guztietan, eta inguruan soinua edo

nolabaiteko hotsa edukitzea ba... sentsazio berria zen". Juanitok giro aldaketa somatu du jai ospatzerako orduan: "Lehen giroa ezberdina

zen. Ez hobea ez okerragoa. Bazirudien kaletarrek mozkortzeko aitzakia edo zute-la, eta horregatik gora igotzerakoan, askeago edo sentitzen ziren, ia beti egoten zen borrokaldi edo istiluren bat. Garai hartan filmak nahiko ezagunak ziren, eta agian eragina izango zuen horretan".

Berak, aurrera eramaten diren ekitaldietan aldaketa batzuk eman direla adierazi zigun. Antza, lehen herri kirolei garrantzi handiagoa ematen zitzaien: "Beti zeuden aizkolari famatuak, edota harrija-sotzailek, edota koadrilen arteko sokatira apustuak. Egun
hain

Erromatarrek sortutako ohitura da zuhaitza jartzearena



uan festa handia

ospetsuak diren Irimora igoera edo toka txapelketa berrixeagoak dira. 20-25 urte inguru izango dituzte". Lehen eta orain Santa Barbarara igotzeko arrazoia antzekoa dela azpimarratu zuen, hau da: ondo pasatzea. "Lehen mozkor handiagoak ikusten ziren". Baina berak oso garbi dauka orain ez dagoela lehen adinako sentimendu erlijiosorik: "Lehen mezataria ez bazinen joaten, horrek egun horretan hutsunea suposatzen zuen. Garrantzi handia ematen zitzaion. Adin bakoitzak festa bizitzeko modu ezberdina dauka".

Juanitoren ustez, gaur jende gehiago hurbiltzen da erromerira, inguruan jende gehiago bizi delako, eta baita ere erratzasun handiagoak daudelako goraino igotzeko: "Urretxutik gorainoko bidea 1950. Urte inguruan eraiki zen". Juanitok oraindik garai hartako pasadizo umoretsu bat gogoratzen du: "Garai hartan kuadrilak bazkaria hartuta igotzen ziren. Oso famatua egin zen Altamirako astoa bazkariak igotzen zituelako edo beste istorio batzuegatik". Antolakuntzan baserriarrek parte gehiago hartzen dutela esan zigun. Lehen udala arduratzen zen aizkoariak edota herri kirol asuntzoak, baina orain baserriarrek beraiek komisio bat sortu dute: "Komisio honetako kideek bilerak egin eta gero festa antolatzen dute".

Donardegi baserriko Juanito Elgarrestak 42 urte daramatza lore koroa prestatzen

Lore-koroaren egintzaren inguruan galdetu genionean honakoa erantzun zigun: "Lehen gazte kuadrilak arduratzen ginen. Urtez urte txandatzat joaten ziren kuadrilak lore-koroaren egintzan. Guri aurrenekoz 17 urterekin tokatu zitzaigun, eta ba... orai-

narte, 42 urtez". Gaur egun erabiltzen den arbolak jada urte batzuk dituela komentatu genuenean, zera aipatu zigun: "Lehen zuhaitza San Juan bezperan moztzen zen. Biderik ez ezer ez zegoenez, astakeria ikaragarriak egiten ziren, idiekin eraman, bizkarrean eraman... ". Hau guztia ekiditeko udalak 55-60 urteen bitartean neurri batzuk hartu zituela esan zigun Juanitok: "Izan ere, zuhaitz bat botatzen zen, baina hau moztearekin batera beste zenbait urratu edo hondatu egiten ziren. Honexegatik eta lan honek guztiak zekarren arriskuengatik, arbol bana moztu zen, bat kalerako eta bestea Santa Barbarako". Zuhaitzak hasera batean Donardegin gordetzen zirela adierazi zigun, baina leku arazoak zirela eta orain Ipeñarrietan dute hauek beren gordelekua. "Batzuek ohiturarekin jarraitu nahi zuten, baina baserriarrek kexatu egin ziren, arbola bat botatzen zen bakoitzean beste hainbeste hondatzen zirelako. Azken urte hauetan ez da arbola aldaketarik egin".

Juanitok dioenez, berak eta baita bera baina zaharragoek ere, zuhaitz baten inguruan ezagutu dute beti ere San Juan eguna. Bere aburuz, inork gutxi edukitu du arbolaren eta udaberriaren inguruko sinbologia horren guztiaren berri.

Donardegiko mutilak oraindik artisautez lanekin jarraitzen du: "Bai, Santo Tomaseta, Santa Lutzitan edo edozein feriatan erakusketa jartzen dut oraindik, baina San Juan egunean inoiz ez dut jarri izan. Inguruko eskoletatik ere gaztetxo taldeak etortzen zaizkit baserrira eta nik pixka bat albarken laborantza prozesuan murgiltzen diet".

Amaitzeko, festa hau moduren batean berrindartzeko aukerarik dagoen galdetu genionean honakoa erantzun zigun: "Bai, gazteen esku egon liteke, ekitaldi berri edo nobedosoren bat antolatzea, duela urte batzuk Irimoko igoerarekin egin zen bezala. Baina ez dakit... agian festa kontzeptua aldatu egin da: lehen pare bat festa geneuzkan ingurukook, baina gaur esaten dute Lesakara, eta Lesakara doaz. Lehen festa gutxiago zaudenez, gogo handiagoarekin bizi izaten ziren".

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA



HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua ☎ 943 72 44 42
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1 ☎ 943 72 56 58



BAPRI
ANIMALIADENDA
Txoriak, arrainak, katuak, dordokak
Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA



KABIA
JATETXEA
Legazpi, 5 ☎ 943 726274
ZUMARRAGA

Kilometroak 02 Urretxu

Urretxu-Zumarraga Ikastola izango da datorren urteko Kilometroak antolatzearen arduraduna. Printzipioz Gipuzkoako Ikastolen jaia den hau 2005 inguruan antolatzea bazegokion ere, 2002an antolatu behar zuten Zarautz eta Orioko ikastolek atzera egin dute eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak gure bi herriotako Ikastolari eskaini dio aukera. Ondo asko dakizuen bezala, Urretxu-Zumarraga Ikastolak 1985eko Kilometroak ere antolatu zuen, orduan Legazpiko Haztegi Ikastolarekin batera.

Kilometroak antolatu nahi duten ikastolek, txostena prestatu eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari aurkezten diote. Honek Ikastola bakoitzaren beharrak eta txostena aztertu ondoren erabakia hartzen du. Gure bi herriotako ikastolak 2002ko Kilometroak antolatzea zegokiola jakin eta gutxira, maiatzaren 31n, prentsaurrekoa eskaini zuen. Prentsaurrekoan Ramon Iturriozek (Zumarragako udaltzaina eta balizko ibilbidearen diseinatzaileetako bat), Sebas Iturriozek (lehendakari ohia), Maria Luisa Mujikak (lehendakaria), Aitor Zubizarretak (zuzendaria) eta Patxi Olabarriak (arduradun ekonomikoa) berri ona, orainarte egingadako lana eta datozen hilabeteotan egin beharrekoa azaldu zuten.

Aitor Zubizarreta zuzendariak 2002ko Kilometroaken helburuak azaldu zituen. "Helburu nagusiak 5 izango dira: gure eraikuntzetan inbertsioak egiteko diru-sarrera berezia lortzea, antolaketa lanetan herritarren partehartzea suspertzea, Kilometroaken diseinua berritu eta frogatzea, Ikastolaren irudia sendotzea eta zer den ezagutaraztea eta eskualdeko euskaltzaleen kopurua handitzea".

Ibilbideari dagokionez, balizko ibilbide bat prestatu dute jada eta zenbait ezaugarri eman nahi izan dizkiote: bertara heltzeko zein bertan egoteko erosoia izatea (area zabalekin eta eguraldi txarra egiten badu estalpeak dituen) eta bi herriotako leku esanguratsuenetatik pasatzea (Antio

eta Santa Barbara lotuko ditu).

Honek guztiaren berri Sebas eta Ramon Iturriozek eman zuten. Sebas Iturriozek esanetan "ibilbidea lantzeko Urretxuko eta Zumarragako udaltzain buruekin (Ramon Iturriozekin eta Juan Luis Aranbururekin) harremanetan jarri ginen lagun ziezaguten eta beraien proposamena aintzakitatzat hartu dugu, dena den, obrek aldaketa txikiak sor ditzakete". Balizko bi ibilbide prestatu dira (luzea eta motza) eta biak asfaltatuak dira bere osotasunean.

Ibilbideak
Santa E
zeharkat

-Zumarragan izango da



Antio eta Barbara lurruna

"Abiapuntua Lizeoa izango da, eraikina bi herriena baita eta hortik Ikastolara joko da. Ibilbide luzea egin nahi dutenak Santa Barbararaino joango dira eta gainon-

tzekoak txaletetatik institutura. Hemen bi ibilbideek topo egingo dute eta Zumarragara jaitsiko dira. Piedad eta Eliz-Kale kaleetatik gora Antiora igoko dira eta Eitzatik jaitsi. Zumarragako eliza ondotik pasatu eta udaletxe ondoko zubitik Lizeora itzuliko dira. Ibilbide luzeak 9,7 kilometro ditu eta motzak, berriz, 6,9 kilometro".

Ramon Iturriozek ibilbidearen nondik norakoaren zergatiak azaldu zituen. "Ibilbidea ez da ez errepide nagusietatik ez Secundino Esnaola kaletik igaroko. Autobusak errepide nagusietan (ibilbidetik gertu) geldituko dira eta jendea bertan utzi ondoren aparkatzera joango dira. Errepide hauek trafikoari zabalik egongo direnez, beste edonora doazen autoek ez dute gure bi herriak igarotzeko inongo oztoporik izango. Bestalde, Secundino Esnaola kalea trafikoari itxita egongo da jendea erosotasun osoz zirkuitura hurbil dadin.

Prensaurrekoari amaiera Ikastolako lehendakari berria den Mari Luisa Mujikak eman zion. Mari Luisak Ikastolak 1985an antolatu zuen eta datorren

urtean antolatuko duen arteko aldeak zeintzuk izango diren azaldu zuen. Datorren urtekoa, 1985ekoa bezala, urriaren 6an izango den arren, aldeak handiagoak dira parekotasunak baino: "2002koaren antolaketan ez du Legazpik parte hartuko, orduan bildutako dirua haur erdaldunak euskalduntzeko metodologia berri bat lantzeko bideratu zen eta datorren urtekoa eraikinak berritzeko izango da, orduan 50.000 lagun bildu ginen eta orain 100.000tik gora biltzea espero dugu, 85ean haurrak zirenak 2002an antolatzaileak izango dira, 85eko ibilbidea ia bere osotasunean Urretxutik igaro zen eta datorren urtekoa bi herrietatik, eta azkenik, datorren urtean euroak erabiliko ditugu".


Duela 16 urte...

80 hamarkada hasieran Urretxu-Zumarragako Lourdesko Ama eta Legazpiko Haztegi ikastolek Kilometroak antolatzeke eskaera bateratua egitea erabaki zuten. Izan ere, bi ikastolak antzeko arazo eta beharrak zituzten eta federazioaren aurrean askotan batera jokatuak ziren. Eskaera bitan atzera bota zieten arren, 85an Kilometroak antolatzeke aukera izan zuten.

Eskaintza urtarrean jaso eta berehala gida batzordeetako gairontzetako lanetatik bederatzi pertsona liberatu eta hauek Kilometroak antolatzeke lehen batzordea osatu zuten. Antolaketa aurrera eramateko azpi-batzordeetan hainbat pertsona elkartu zitzaizkien eta urriaren 6an guztira 1.500 lagun inguru aritu ziren lanean.

Zirkuitua non antolatu erabakitzeke orduan zenbait tirabira izan ziren. Hiru herriak lotuko zituen ibilbidea prestatzea pentsatu zen arren, luzeegia eritzi zitzaion. Hori dela eta, Legazpikoek eta Urretxu-Zumarragakoek proposamen bana egin zioten federazioari eta honek aurreko urtean antolaketaren ardura izan zuten oreretarren esku utzi zuten aukeraketa. Hauek Urretxu-Zumarragako ibilbidea hautatu zuten, zirkuitu osoa asfaltatua zelako eta bi herri hauek komunikabide eta aparkaleku gehiago zituztelako. Ordainean, Kilometroak 85eko lehendakaritza legazpiarrei eman zitzairen eta hauek Luis Ugarte hautatu zuten kargu horretarako.

Ordurarte Kilometroetan bilduta-



50.000 lagun inguru bildu ziren Kilometroak 85en

ko dirua lekuan lekuko ikastolen beharretara zuzendu bazen ere, 85ean Euskal Herria osoari onura ekarriko zion helburua hautatu zen: jatorriz erdaldunak ziren haurrak euskaldundu eta ikasketak euskaraz egin ahal izateko plangintza prestatzea, hain zuzen ere.

Ekitaldiei dagokienez, Legazpin urriaren 6an ospakizunik gabe geratu zirenez, bertan izan ziren Kilometroak 85 inguruko ekitaldi gehienak, hamabostaldi kultural baten barne. Dena den, Urretxu-Zumarragan ere hainbat ikuskizun izan ziren: bailarako aurkezpen ofiziala, Itoizen kontzertua, pilota partiduak, futbito txapelketa...

Urriaren 6a heldu zen azkenean eta ibilbidea guztiz arrakastatsua izan zen. Sei kilometro zituen, hauetatik bost baserri, zelai eta soro artean. Ibilbidea Ipeñarrieta kalean hasten zen eta Secundino Esnaola, Legazpi eta Soraluze kaleetatik pasatuz, Urretxuko aldapa igo eta Santa Barbaratik buelta ematen zuten. Ibilbidean lau atsedentoki paratu ziren: Euskadi enparantzan, institutuan, Santa Barbaran eta Zuloaga baserriondoko pagadian. Gune hauetan eta ibilbidean zehar, dantzariak, txistulariak, trikitilariak, pailazoak, herri kirolak, artzai txakurrak, artisau

erakusketak... izan ziren egunak merezi zuten giroa sortzen laguntzeko.

Eguraldi bikaina egin zuenez, jendetza izugarria inguratu zen: guztira 50.000 lagun inguru bildu ziren gure bi herriotan, Kilometroak 85 ordurarte ospatutakoen artean jendetsuena izan zelarik. Eguerdialderako postuetako kamiseta eta txano guztiak saldu ziren eta tabernetan ere hainbat genero agortu zen. Egunean eta aurretik buruturiko ikuskizunetan 35 milioi pezeta baino gehiago jaso ziren, etekin garbia 16 milioi pezetatakoa izan zelarik.

Asier Otamendi: San Prudentzioren begiko bertsolaria

Asier Otamendi bertsolari urretxuarrak bosgarren aldiz irabazi du San Prudentzio Saria izenaz ezaguna den Arabako bertsolari txapelketa eta honenbestez gaindizten zaila izango den marka ezarri du. Gipuzkoarra izanik, deigarria iruditzen zaio jende askori Asierrek Arabako txapelketan parte hartzea, baina Otamendi Gasteizera ikastera joan ostean egin zen bertsolari eta egun AEKko irakaslea denez Arabako hiriburuan bertan bizi da. Asteburuetan bertso saioak izaten dituenek, noizean behin soilik etortzen da Urretxura eta berarekin izan genuen solasaldia telefono bidezkoa izan zen.

Zorionak Asier, nondik datorkizu bertsozaleatasuna?

Ikastolan zaletu nintzen eta zertxobait aritu nintzen arren, utzi egin nuen. Gasteiza ikastera joan nintzanean, bertsolaritzaren booma eman zen eta honekultzatuta Gasteizko bertso eskolan izena eman nuen. Hasieran bertsoak idatzi egiten nituen, baina bigarren urterako bat-batean hasi nintzen eta gai nintzela ikusi nuen. Lau bat urte eman nituen bertako bertso eskolan ikasle moduan eta ondoren irakaslea ere izan naiz.

Gai zinela ikustetik plazara jauzia egitera, ordea, badago aldea...

Duela zortzi urte, bertso eskolan bi urte neramatzanean, Legutiora joan ginen bertso saio bat ikustera bertso eskolakook, baina Jon Maia eta Igor Elortza ez ziren azaldu. Batenbatek Asier Iriondo eta biok taulara igotzea proposatu zuen eta ezin ihes egin... Taula gainera urduri igo nintzen arren,aldi berean, barneko arra ere piztu zitzaidan eta ordutik horretan nabil. Izan ere, bere burua bertsolaritzat duenak jendaurrean kantatu beharra du! Ordutik aurrera urtero 20 bat saio egiten ditut, gehienak Araban, baina baita gainontzeko herrialdeetan ere.

Handik gutxira San Prudentzio sarira aurkezten hasi zinen...

Bai, zortzi urte daramatzat jada San Prudentzio sarian parte hartzen.

Txapelketara betikoak aurkezten ziren, ez zuten maila handirik eskatzen aurkezteko eta honela hasi nintzen.


“Jon Maiak eta Igor Elortzak kale egin zuten batean kantatu nuen lehenengoz jendaurrean”

Aurten bosgarrenegoz irabazi duzu jada sari hau, nola joan da txapelketa?

Aurtengo txapelketa nahiko pattal hasi nuela iruditzen zait, baina gero finalean maila ona eman nuen eta irabaztea lortu. Aurtengoa bosgarren txapela da, baina ilusio gehien egin zidana lehenengoa izan zen, lehenengoz txapela irabazteko zorian zaudela ikustea oso sentazio berezia baita.

Hurrengo erronka Euskal Herriko Txapelketa izango duzu...

Hala da, Arabatik txapelketan bigarren gelditu zen Ruben Sanchez eta biok joango gara maila ona eman asmoz.



Argazkia: Euskaldunon Egunkaria

Ez diot neure buruari helburu zehatzik jarri nahi eta nire maila erakustearekin gustura geldituko naiz.

Zer esango zenieke gipuzkoarra izanik Arabako txapelketan parte hartzeari gaizki deritzotenei?

Jaiotzez gipuzkoarra banaiz ere, Araban hasi nintzen bertsotan eta bertan egin nintzen bertsolari. Araban egin nituen unibertsitate ikasketak eta Araban egiten dut lan. Hau izan da nire bertsolari habitata eta hemen eskaini ditut saio gehienak, hemengo txapelketan parte hartu ezin badut, nongoan hartuko dut ba?

Zer moduzko bertso giroa bizi da Araban?

Azkenaldian bertsolari dexente ateratzen ari da, baina oraindik maila apala dute eta urte batzuk beharko dira jende ona atera dadin. Pozgarriena giro hori egotea da eta Gasteizko bertso eskolan hori badago. Gasteizen euskaldunok gutxiengoa gara, baina lana egiteko gogotsu gaude eta egoera nahiko kontrakoa dugun arren, euskaldunok burugogorrek eta tematiak garenak, egoera hobetzen saiatzen ari gara.

Jon Ormazabal, Alavesekiko

Jon Ormazabal kazetari zumarragarra bi urte daramatza Gara egunkariko Gasteizko erredakzioan Alaves taldearen jarraipena egiten eta hala izanik talde arabarraren historiako denboraldirik onenak gertu-gertutik bizitzen ari da. Maiatzaren 16an Alavesek UEFA txapelketako finala jokatu zuten Dortmunden Liverpoolen aurka eta lehenengoz UEFA

kopa Euskal Herrira ekartzeko zorian izan zen. Jon Alaves taldekoekin joan zen Alemaniara eta egun haiek jokalaria arabarrekin eta zalegoarekin igaro zituen Gara egunkarirako lanean. Dortmundetik itzuli eta egun gutxira berarekin izan ginen, aldizkari honetako kolaboratzailea izanik, hain ondo ezagutzen duen Otamotz aldizkariako erredakzioan.

Zer moduz Alemania aldean, Jon?

Oso ondo. Normalean Alavesek Gasteiztik kanpo jokatzen dituen partidua telebistaz jarraitu ohi ditut, derbiak izan ezik, eta oso esperientzia aberasgarria izan da. Kazetariok hegazkinean jokalariekin joan ginen eta bertan entrenamenduetan dirudiena egia dela ziurtatu genuen, hau da, taldean oso giro ona dutela.

Dortmunden sekulako giroa bizi izango zen...

Astelehenean joan ginen Alemaniara eta egun gehienak goizetik gauera lanean eman nituen, baina partida eguneko goiza libre izan nuen. Sekulako giroa izan zen Dortmundeko kaleetan, giro euskalduna gainera, nahiz eta gipuzkoarrok halakorik ez espero, Euskal Herriko zilborra garelako uste baitugu. Zaletu arabarrez gain, bizkaitarrak eta gipuzkoarrak ere bazeuden (herritarren bat ere bai), denak anaikidetasunean eta euskal taldeen ereserkiak abesten. Bestalde, bi taldeetako zaletuak elkarrekin eta giro ederrean ibili ziren eta honenbestez hooliganek euren ospe txarra hobetzea lortu zuten.

Partidua zer azpimarratuko zenuke?

Giroa hunkigarria zen. Ate atzeko harmailetan 20.000 zaletu inguru zeuden eta Liverpooloko zaletuak euren taldearen ereserkiak denek batera eta koru baten moduan abesten entzutea zirraragarria izan zen. Giroaz gain partidua bera ere ikusgarria izan zenez, tentsio batean ikusi nuen partidua, nahiz eta sekula ez

naizen bereziki Alaveszalea izan. Hertzainak taldeko abeslaria izandako Gari gurekin partidua ikusten izan zen, Garak ateratako gehigarria banatzera joan baitzen, eta haren oihuak eta saltoak ikustekoak izan ziren. Nire ustez, partidua hasi aurretik Alavesen aurkako aurriritzia zuten euskaldunek ere partidua gure antzera bizi zuten.

Zer sentitu zenuen Alavesek bere atean gola sartu zuenean?

Alavesek ez zuen hala galtze merezi eta Liverpooloko zaletuak ere uste berdinekoak ziren, partidua amaitu ondoren guregana etorri baitziren eskua ematera. Liverpooli finala irabaztea-

“Penarik handiena Karmona kopa altxatzen ez ikusteak eman zidan, berak bereziki merezi baitzuen”



UEFAko finalean

gatik datorren urteko UEFA txapelketan jokatzeko zeregion, baina Txapeldunen Liga jokatu duenez, zurrumurruek diotenez bere postua Alavesi ematea eskatuko omen du. Dena den, penarik handiena Karmona kopa altxatzen ez ikusteak eman zidan. Norbaitek kopa merezi bazuen, hura bera zen. Jokalari ona iruditzen zait, baina pertsona bezala primerakoa da. Futboleko alde txarraren ezagutu du (Sestaon jokatu zuenean greban egon zen taldekideekin ordaintzen ez zirelako) eta berarekin hitz egiten duzunean ez dirudi futbolaria denik, aurki daitekeen pertsonarik umilena baita.

Umiltasun horretan uste al duzu datzala Alavesen arrakasta?

Nire ustez oso ondo dakite zer diren eta zer egin behar duten, argi dute topera jokatu ez badute talde arrunta dela. Aldagelan oso giro ona dutela uste dut eta hau ezinbestekoa da. Jokatu ez dutenek, sekula ez dute protestatu eta hori oso toki gutxitan gertatu da. Hau entrenatzailearen eta fitxaketaren eragina duten gainontzekoen meritua da, jende asko fitxatu baitute azken urteotan eta inor ez baita keizten entrena-tzaileak aulkian uzten badu.

“Alavesek talde erdaldunaren fama du eta oraindik ere gaizki xamar ikusia dago, baina nire ustez inbidia kontua da, nahiz eta jendeak ez duen onartu nahi”

Mane entrenatzaileak kontratua berri du ere, jokalaria batzuk joan dira jada eta datorren denboraldiko taldea ahulagoa izan daiteke...

Manerena txalotzeko da,


Valentzia taldearen sekulako eskaintza zuen arren Gasteizen gelditzea erabaki baitu. Izaera kontua da: Gasteizen dituen konfidantza eta lasaitasunari diruari baino garrantzi handiagoa eman die eta hau oso arraroa da. Jokalari batzuk saldu egin behar izan dituzte eta oso zaila izango zaie azken bi denboraldietan egindakoa errepikatzea. Baina orain arte diru gutxirekin ondo fitxatzen asmatu dute eta oraingoan ere asmatzen badute ondo ibiliko dira. Izan ere, Alavesen jendeak uste baino jokalaria hobeak daude.

Alaveseko zaletua egin zarela dirudi...

Ni Realzalea naiz eta talde arabarra ez da nire bihotzeko taldea, baina nire bigarren taldea dela esan dezaket. Alavesek talde erdaldunaren fama du euskaldunen artean eta oraindik ere gaizki xamar ikusia dago, baina nire ustez inbidia kontua da, nahiz eta jendeak ez duen onartu nahi. Alaves lehenengo mailara igotzeko zenean, denok geunden bere alde, baina orain jende askori izorratu egiten dio Alavesek lortu duena lortu izana. Nire ustez Athletic eta Osasuna Alavesen lekuan egongo balira, jende asko ez litzateke poztuko. Ez dut ulertzen nola egon daitekeen, adibidez, Real Madrilek Athletici irabaztea nahi duen jendea.

Bukatzeko, zein balorazio egingo zenuke Alavesekin lanean eman dituzun bi urte hauetaz?

Hasieran Gasteizen egokitzea gogorra egin zitzaidan, ez bainuen inor ezagutzen eta Alaves taldea bera ere ez bainuen gehiegi ezagutzen. Orduan niretzako errazagoa izango litzateke Realarekin lana egitea, baina era berean, Alavesekin lana egitea lasaia ere bada. Alavesen urte onenak bizitzen ari naiz eta hau lanerako hobe da, taldean giro ona baitute. UEFA txapelketako finaleraino iritsi direnez, denboraldi honetan lan asko egin behar izan dut, baina beti ere hobe da gauza onei buruz idaztea. Garan ere oso gustura nago, oso harreman ona baitugu Gasteizko erredakzioan lan egiten dugun guztiok.



RENEDO argazkiak

Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU
☎ 725682 ☎ 722292




MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



ARKUPE
TABERNA

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

E K A I N E K O A G E N D A

8, ostirala

- Goizeko 11:30etan, Pagoeta Antzokian, **Eskolarteko XIV. Bertso-paper lehiaketaren sari banaketa**.
- 16:00etan, Zumarragako Gizarte Zerbitzuen Zentruan, **ikastaroa**: Grabatua kristalean azidoarekin.
- 19:30etan, Legazpi dorretxean: Zuberoari buruzko diaporama.
- 22:30etan, Zelai Arizti pilotalekuan, **kaleko zinea**: "El espinazo del diablo".

9, larunbata

- 11etan, Kultur Etxean, Larunbatetan festara (**haurrentzako eskulanak**).
- Biba Xiberual!**: 16:30etan, Areizaga-Kalebarren plazan, Zuberotarrei ongiatorria.
- 18:00etatik aurrera: Urretxu eta Zumarragako kaleetan zehar, dantza-kalejira.
- 19:30etan: Areizaga-Kalebarren plazan, dantza saio berezia.
- 22:00etan: Gernikako Arbola plazan, gau jaialdia.

10, igandea

- Biba Xiberua**: Goi-Urola bailaratik ibilaldia.
- Eguerdiko 12etatik aurrera, kantu kalejira.
- Oletako eguna**: 12etan meza eta ondoren erromeria.
- Euskadi enparantzan **Extremadura eguna**: 10etan: bertako goxoki eta produktuen erakusketa eta salmenta.
- 12:30etan: Legazpiko "Sones de Extremadura" dantza taldearen eta Irrintzi dantza taldearen emanaldia.
- Arratsaldeko 6etan: "Sones de Extremadura" taldearen saioa.

11, astelehena

- Ekainaren 15a bitartean epaimahaiak leiho, balkoi eta baserrien sarreretan jarritako loreak ikusiko ditu.
- 16etan, Kultur Etxean, **eskulanak** bazkideen artean (Mairi emakumeen elkarte).

15, ostirala

- 22:30etan, Gernikako Arbola plazan, **kaleko zinea** (eguraldi txarra eginez gero, Aldiri kiroldegian izango da).

16, larunbata

- 11etan, Kultur Etxean, Larunbatetan festara (**haurrentzako eskulanak**).
- Goierri Mendi Elkartearen **asteburuko irteera** Burgosera: Fresneda de la Sierra-San Millan-Pineda de la Sierra. Lagunas de Neila-Campiña-Quintanar de la Sierra.
- 22:30etan, Zelai Ariztikio kioskoan, Sacratif taldearen **musika emanaldia**.

17, igandea

- Lurra Dantza Taldearen Dantzari Txiki eguna**
- 12etan kalejira Urretxuko kaleetan zehar.

Erakusketak:

- Ekainaren 9ra bitartean: Zuberoako erakusketa Itarte Etxean.
- Ekainaren 13tik 24era bitartean, Juan de Lizarazu erakusketa aretoan, Elisabet Mendiaren margo erakusketa.
- Ekainaren 28tik uztailearen 8ra bitartean, David Elgearen margo erakusketa Juan de Lizarazu aretoan.
- Ekainaren 28tik uztailearen 8ra bitartean, Juantxo Egañaren "Kultur bizitzako erretratuak Euskal Herrian" argazki erakusketa Itarte Etxean.

Lehiaketak:

- Narratiba eta poesiako Iparragirre saria 2001
- Lanak aurkezteko epea irailaren 7an amaitzen da. Izen ematea: Kultur Etxean eta Zumarragako Udaleko Kultura Sailean.
- XIII. Pintura Lehiaketa: lanak aurkezteko epea irailaren 7an amaitzen da. Izen ematea, Kultur Etxean.
- Argazki Lehiaketa 2001: lanak aurkezteko epea irailaren 7an amaitzen da. Izen ematea, Zumarragako Udaleko Kultura Sailean.

- 17:30etan, Gernikako Arbola plazan, jaialdia (eguraldi txarra eginez gero, Aldiri kiroldegian egingo litzateke).

18, astelehena

- 16etan, Kultur Etxean, **eskulanak** bazkideen artean (Mairi emakumeen elkarte).

20, asteazkena

- 16etan, Kultur Etxean, **hitzaldia**: "Bi begi bizi guztirako". Mairi emakumeen elkarte.

22, ostirala

- 12etan, Zumarragako Udaltzeko Areto Nagusian, Zumarraga eta Urretxuko **Lore Sariketa** 2001eko sari banaketa.
- 19etan eta 20etan, Aldiri kiroldegian, **areto futbola**: San Juan txapelketa (final erdiak).
- 22:30etan, Gernikako Arbola plazan, **kaleko zinea** (eguraldi txarra eginez gero, Aldiri kiroldegian izango da).

23, larunbata

- Bizikleta festa**: goiz eta arratsalde, jolasak, trialsin, erakustaldiak, zirkuitoa...
- 18etan, Aldiri kiroldegian, **areto futbola**: San Juan txapelketa (3. eta 4. postuak).
- 19etan, finala.
- San Juan sua**
- Zumarragan**: 20:45etan: "Antzinako Ama" txistulari taldearen eta Zumarragako Musika Bandaren kalejira. 22:00etan, Euskadi enparantzan, sua piztuko da eta Musika Bandak San Juanetako ereserkia joko du.
- Urretxun**: 20:30etan, San Juan arbola ipintzea Santa Barbaran.
- 21:00etan: Txistularien kalejira.
- 22:30etan: San Juan sua Gernikako Arbola plazan.

24, igandea (San Juan eguna)

- 10etan, igoera Santa Barbarara.
- 11etan: herri meza.
- Ondoren, toka txapelketa, bertsolariak, Irimora igoera, herri kirolak..
- 14:30etan: herri bazkaria.
- 17etan: erromeria.
- 20etan: jaitsiera herriraino.
- Oharra: bazkarirako mahaien zozketa parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago ekainaren 13ra bitartean (Kultur Etxean). Zozketa ekainaren 14ean egingo da, Kultur Etxean, arratsaldeko 7etan eta irekia izango da.

25, astelehena

- Euskadi enparantzan, 25, 26, 27 eta 28an, haurrentzako jolasak, diskoteka, taellerak, herri kirol eta jolas parkea, puzgarriak eta txu-txu trenak.
- 16etan, Kultur Etxean, **eskulanak** bazkideen artean (Mairi emakumeen elkarte).



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
 Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxa: 943 72 54 31 ZUMARRAGA



Ainhoa, zer dela eta duzu horren estu itxiarik ahoa? Bertan itoko zaizu irentsi duzn euli gaixoa! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Alberto, hori da hori kolorea duzuna! Hondartzan izan al zara eguzkia hartzen? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Amaia, zuk bai duzula irrifarre alai! Ea inguruan dituzunei irrifarre egiten erakusten diezun, haserre daudela dirudi eta! **Zorionak!**



Ana, Inakirekin zaudenean ere ezpainak hain estututa izaten al dituzu? Ez dio ba grazia handiegirik egingo... **Zorionak!**



Ander, ez zaitez hain zekena izan eta joan zaitez argazkilaria- rengana argazki berri bat ateratzera, urtero argazki berdina uzten digute eta! **Zorionak!**



Andoni, hori da hori harridura aurpegia duzuna! Sekula argazki kamera bat ikusi gabea al zinen! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Asuntzion... hori da hori sarjeto aurpegia duzuna! Bilobari ere horrelako begirada "goxoak" eskaintzen al dizkiogu? **Zorionak!**



Asun "piripi" xamar zeundela atera al zizuten argazkia? Hori da hori aurpegia duzuna! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna, baina pasa gabe!



A ze para **Beatriz eta Nerea!** Batek bihurrikeria egin orduko besteak prestu du berea! Etzazue txintxo aurpegia jarri argazkian ateratzeko, ondo asko dakigu eta bihurri xamarrek zaretela! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Cristina, sekula ikusi dugun lekainerik gazteena izango zara! **Zorionak** eta segi zapia buruan duzula munduan!



Gaizka "pitillo" el rey del flequillo! Ilcapaindegira joaten haizenean zolua sega zelaietik pasatzen dutenean bezala utziko duzu! **Zorionak!**



Ibai, beti parrez eta alai! Horren zoriontsu aurpegia duen mutila izanik, zuen etxean beti izango da jai! **Zorionak** eta segi horren irrifartsu!



Igone ez al zara jada zahar xamarra txiklearekin puxikak egiten aritzeko? **Zorionak** eta kontuz ibili, aurpegi lehertuko zaizu eta!



Igor, bagenekien futbola utzi zenuela, baina ez hain aspaldi izan zenik! Argazkia ikusita Zarra, Panizo eta Gainzarekin jokatuz zenuela dirudi! **Zorionak!**



Imanol, zer ari zinen esaten argazkilaria? Txoria begiratu behar da, ez berarekin berrietan jardun! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Imanol, hori da hori flekiloa motel! Marujita Diaz mutil lagunik gabe gelditu dela eta berarekin ligatzeko apropos orraztu al zara? **Zorionak!**



Inma, argazkilaria izaten al dizue Euskaltegian nahi bezainbeste ikasten? Klaseko bihurriena bera izango da seguraski! **Zorionak!**



Irati, zer dela eta ageri zara horren lortsati? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna! (eta Ikastolara goxokiak eraman, lagunek gustura hartuko dituzte eta!).



Jon, dagoenean bonbon eta ez dagoenean egon! Argazkia ikusita, badirudi egonean zaudela azkenaldian... **Zorionak** eta ea urtebetetze egunean baden zer edo zer.



Jon, oraindik gazte xamarra dirudizun arren, zure aurpegia ikusita ez dira ez makalak izango etxean egingo dituzun bihurrikeriak! **Zorionak!**



Joseba, hori da hori bihurri aurpegia duzuna! Katekistak nazka nazka eginda izango dituzu jada! **Zorionak** eta ondo ibili!



Lara, zu ere saskibaloian jokatzen duen batekin "enroilatu" al zara? **Zorionak** eta ea noizbait eskaintzen diguzun farre algara!



Lucia, ea urtebetetze egunean behingoz oparitzen dituzen orrazia! Eskerrak ile motza duzun... **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!




Maddi, ez dizugu irrifarre egiteko eskatuko, komunera bidean estu eta larri zaudela dirudi eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Nik zu dizut ala nik zu zaitut izango al da? **Zorionak Mainer** eta etzazu zeure burua hainbeste estutu euskaltegian, burmuina sudurzuloetatik aterako zaizu eta!



Mari Carmen eta **Mikel**, Ea dozena erdi bat kakaume ekartzen dituzuen eta Euskal Herriko jaiotze tasa zertxobait igotzen duzuen! (guk ere lagunduko genizueke, baina ez digute uzten).



Miriam buruan jarri dizuten txoria eramatea ez duzula atsegin nabari zaizu aurpegi! **Zorionak** eta utzizazu txoria aske hegan egin dezan!



Maria, zure izen bera duen amabirjina ikusi duzula dirudi neska! Noizean behin begiratu ezazu lurrera ere, txakur kakaren bat zapaldu nahi ez baduzu! **Zorionak!**



Mikel, kontuz, buruarekin argazki kamera jo eta kristala txikituko duzu eta! **Zorionak** eta eutsi goiari (baita buruari ere)!



Mikel, ea noizean behin belarriuloak garbitzen dituzun, jada alien bat ateratzen hasi zaizu eta ezkerreko belarritik! **Zorionak!**



Naroa, hainbeste txorakeri eta ergelkeri idatzi ondoren, zuri ezer idazteko indarrak gabe gelditu gara. Beraz, **zorionak** eta kitto!



Noel, aurtun zure aita pasa dadila gure etxetik, Olentzerok azkenaldian ikatza besterik ez digu ekartzen eta! **Zorionak** eta eskuminak zure "papa"ri!



"Jo chica, que pasada... mi perfil izquierdo mola cantidada..." Eskuineko perfila erakustek lotsa ematen al dizue? **Zorionak Pilar!**



Ya te **Valen**, tio! Moztuizak behingoz patilak, aurki Asier Osinaldek baino iletuagoak izango dituk eta! **Zorionak!**



Valen, hainbeste txorakeri eta ergelkeri idatzi ondoren, zuri ezer idazteko indarrak gabe gelditu gara. Beraz, **zorionak** eta kitto!

Jose Ignazio Ramirez: aurretik medikuak azterketa egitea

Uda heltzear dago jadanik eta eguraldi onarekin batera jende asko kirola egitera animatzen da. Naturaz gozatzeko dela, neguan hartutako kiloak kentzeko dela... mendiak eta errepideak, ibiltari, korrikalari zein txirrindulariz bete ohi dira udaberrian. Baina kirola egitea osasuntsua dela argi dagoen arren, behar bezala egiten ez bada norberaren kalterako ere izan daiteke. Egiten dugun ariketa fisikoa ahalik eta erarik zuzenean eta probetxuagarrienean egiteko zer baldintza bete behar diren jakiteko Zumarragako kiroldegiko medikua den Jose Ignazio Ramirezengana jo dugu. Jose Ignaziok, medikuntza ikasi ostean, kirol medikuntza espezialitatea egin zuen eta 1989az geroztik Zumarragako kiroldegiko kirol medikuntza zentruan kirolariek lanean dabil.

Bertan Legazpi, Urretxu eta Zumarragako kirol taldeetako kideentzat lan egiteaz gain, bere kabuz aritzen diren kirolarientzat zein beste hainbat herritarrentzat ere lan egiten du. Jose Ignazioren esanetan "oso garrantzitsua da kirol bat egiten hasi aurretik azterketa medikoa egitea, emaitzak ikusi ondoren bakoitzari zein kirol egitea komeni zaion zehaztu baitaiteke. Bestalde, jakin ez arren, bihotzeko arazoak izan ditzakegu eta edozein modutara kirola egiten hastea arriskutsua izan daiteke".

Jose Ignaziok bihotza, birrikak, malgutasuna, bizkarra... aztertzen dizkie berarengana joaten direnei eta bere ustez frogarik garrantzitsuena esfortzu froga da, bihotza esfortzua egiten ari denean nola erantzuten duen ikusteko eta erresistentzia neurtzeko balio baitu. Frogak egin ondoren, lehenengoz kirolen bat egin nahi dutenei zer komeni zaien esateaz gain, hauei zein jadanik kirola egitera ohituak daudenei euren pisu ideala zein den eta kirola zein erataria egin behar duten esaten die. Bakoitzak bere ezaugarrien arabera bihotz taupada kopuru zehatz batzuetan egin behar du kirola eta behar bezala aritzeko oso garrantzitsua da Jose Ignazioren ustez pulstometroaren erabilera.

Kiroldegian lanean jardun den urte hauetan guztietan kirolariengan hainbat ohitura onuragarri sustraitzen saiatu da, nahiz eta bere ustez oraindik jendeak ez dien gauza hauei guztiei behar adina garrantzi ematen. "kirolak bi taldetan banatu daitezke: aerobikoak eta anaerobi-



koak. Lehenengok erresistentzia jorratzen dute eta bigarreneok momentuko esfortzua. Korrika egitea, igerian aritzea... adibidez, aerobikoak dira eta abiadurazko lasterketak, indarra neurtzen duten kirolak... anaerobikoak. Ni kirolari guztiek erresistentzia aerobikoa jorra dezaten saiatzen naiz, oso garrantzitsua eta onuragarria baita kirol anaerobikoak egiten dituztenentzat ere". Lehenengoz serio xamar kirol bat egiteko asmoa dutenentzat ere gomendagarriena kirol aerobikoekin hastea omen da: "medikuok gehien

gomendatzen dugun kirola igeriketa da, gihar asko lanean jartzeaz gain, uretan egiten denez, ez baitu artikulazioetan kargarik sortzen. Bestalde, fisikoki nahiko pattal daudenak hasieran bizikletan ere ibil daitezke. Kirola lasai hartu behar da hasieran eta jadanik kirola egiten ohituak daudenei ere denboraldia lasai hastea komeni zaie".

Baina ez da arlo aerobikoa lantzea Jose Ignaziok kirolariei ematen dien aholku bakarra: "luzaketak egitea ere ezinbestekoa da lesioak eragozteko, baina

“Kirola egiten hasi oso garrantzitsua da”

jendeak ez du ohitura hori batere sustraitua. Taldeetan denboraldi hasieran luzaketak egiten dituzte, baina gero albo batera uzten dituzte. Luzaketak denboraldi osoan eta entrenamendua zein konpetizioa hasi aurretik, bitartean eta ostean egin behar dira. Bestalde, azterketa egiten dietenean kirolariei zer modutara entrenatzea komeni

“Kirolariak erresistentzia aerobikoak eta luzaketek duten garrantziaz ohartarazi daitezten saiatu naiz batez ere urte hauetan guztietan”

zaien ere esaten diet, baina hau talde kirola egiten dutenek jarraitzea oso zaila da. Bakarkako kirola egin ohi dutenek, ordea, errazagoa dute eta aholku hauek jarraitu ohi dituzte”.

Aholku hauek guztiak lesioak saihesteko asmoz luzatzen dizkie Jose Ignaziok kirolariei, baina aholkuak jarraituta ere ezinezkoa da askotan zoritxarra saihestea. Zumarragako kirol

medikuntza zentruan, kirolariei azterketak egiteaz gain, lesioen ondoren osatze lanean laguntzen diete berriro ere lehenbaitlehen kirola egiteko moduan egon daitezten. Kirol bakoitzean lesio zehatz batzuk eman ohi dira: futboleko belaunetakoak eta giharretakoak, saskibaloian txorkatila bihurritzeak eta behatzetakoak, eskubaloian sorbaldakoak, txirringularitza erorketak... Baina, bestalde, kirola egiteak lesio onbera batzuk sortu ohi ditu, "atleta bihotza" esaterako. "Bihotza ere muskulu bat da eta

kirola eginez hazi egiten da. Hori dela eta, kirolariak ariketa egiten jarraitu behar dute atrofiatu ez dadin” dio Jose Ignaziok.

Dabiltzanei suertatu ohi zaizkien lesioez gain, zoritxarrez, azkenaldian hainbeste zeresan ematen ari den dopinak kirol medikuntzaren izen ona ere zikindu du. Jose Ignazio Ramirezen ustez dopina aspalditik datorren kontua da, baina "lehen medikuek ez zuten zerikusirik dopinarekin, gero beraiek ere esku hartu zuten hau kontrolatzeko eta azkenean kontrolak eragozteko ikertzen hasi ziren. Nire ustez gure esku ere badago dopina desagertaraztea.

Debekatuak dauden sustantziek epe luzean sor ditzaketen kalteen berri eman beharko genuke kirolariak dopinaren aurkako jarraira har dezaten. Txirringulari gazteak niregana etorri izan dira zerbaite eman niezaizen: nork bidali izan ditu niregana?”

Dopina eta lesioak kirolaren alde txarra badira ere, kirola egitea osasungarria dela argi dago: "urteetan aurrera egin ahala kirola egin izanak gure bizi kalitatean eragin positiboa izango du. Medikuen aholkuak jarraituz, neurritz eta zuzen, edonork egin dezake kirola. Gaixotasunen batekin etorri direnei, bihotzeko arazoak aurkitu dizkietenei... sekula ez diet kirolik ez egiteko esan, zenbait baldintza betez beraien ztat ere onuragarria baita kirola egitea”.

Montajes e Instalaciones Electricas
HERCE
Electricistas. M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA
Jaurrieta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura
Labeaga 31 ☎ 943722780
URRETXU

foto luz
Argazkilariak


Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga
Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu
Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

ETXABURU
merenda-lekua

Santa Barbara bidea
URRETXU

☎ 943 72 22 77





Lazaro Ormazabal

Eitzako jaien ondoren, auzokoek zabaltzen duten Txomin taberna txukuntzen ari zela izan ginen Lazarorekin berriketan. Eitzan jaio, ordutik beti Eitzan bizi eta ikasketak ere Eitzan hasi zituen Lazarok. Handik La Sallera pasa zen eta institutuan eman zuen ikasle garaletako azken urtea. Hainbat lantegitan lanean izan ondoren, azken urteotan Alkor tailerrean dabil.

Herritarrak herriaren alde ahal bezainbeste egitearen aldekoa izanik, betidanik auzoko eta herriko saltsa guztietan buru-belarri murgildu da. Honela, 25 urte luzez Irrintzi Dantza Taldean aritu zen eta Santa Isabel egunean Zumarragako

Ezpatadantza makina bat aldiz dantzatu zuen. Zumarragako taldearekin bitan aritu zen Herriarteko Pilota Txapelketan eta 70ean segurarrei finala irabazi zien taldean, infantil mailako bikotea osatu zuen Jon Garziandiarekin batera. Ondo asko gogoratzen duenez, angelusaren ordua iritsi zenean 13 eta 6 galtzen joan arren, angelusaren ondoren hamar tantu segidan egin eta partidua irabaztea lortu zuten. 1996-2000 legealdian Herri Batasunako zinegotzia ere izan zen Zumarragako Udalean.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Ezer ez bereziki, ez baitut gogoratzen.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendian ibiltzea eta lagunekin ateratzea.

-Bizitzeko toki bat?

Eitza, noski.

-Eitza independentea, bai ala ez?

Garai batean "Frente de Liberación de Eizaga"koak izan ginen, baina nahiz eta auzo berezia izan Eitza beti izan da Zumarraga eta hala jarraitu behar du.

-San Isidroak ala Santa Isabelak?

Santa Isabelek garrantzia handiagoa dute.

-Eitzako jaietatik, zer gehitu dakieke Zumarragakoei?

Zumarragako jaiak, Santa Isabel eguna izan ezik, ez dira oso herrikoiak. Nire ustez Eitzako jaietan egoten den giroa falta zaie.

-Garai bateko pilotariak hobek al zineten?

Ezberdinak. Orain serioago prestatzen dira. Gure garaian txokatxean jokatzetik txuriz janztera pasatzen ginen.

-Gustuko pilotaria?

Inaxio Errandonea.

-Kapitainak formal ibili beharra al du Santa Isabel bezperan?

Kapitainak zaindu beharra du, bai, sokakoek, ordea, ez dute hainbeste zaindu beharrik. Kapitaina izan nintzen urte haietan, normalean zaintzen nintzen.

-Pilotaria, dantzaria, zinegotzia... Zumarragaren alde egin beharreko guztia egin al duzu?

Ez, badago oraindik zer egin herriaren alde... Baina jendea egun oso eroso bizi da eta herriaren alde lan handiagoa egin beharko litzateke nire ustez.

-Seme-alabak ibiltzen diren taberna berdinetan ibiltzeak ez al dizu lotsarik ematen?

Beno, Osaban soilik topo egiten dut beraiekin eta beraiei lotsa handiagoa ematen die aita bertan topatzea...

-Ileheriak ala beltzaranak?

Ileheriak.

-Egindako azken oparia?

Erloju bat.

-Eta jasotakoa?

Prakak.

-Data bat?

23-F, nire urtebetetze eguna baita.

-Neska eta mutil izen bana?

Maitane eta Xabier, seme-alabenak.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gara.

-Gustuko telebista saioa?

Gutxi ditut gustuko. Egunero ETB ikusten dut eta azkenaldian pelma xamarrak direla iruditzen zait: Sorginen Laratza eta Goenkale oso errepikakorrek dira. Kirol saioak ere ikusten ditut.

-Bereziki gorroto duzuna?

"Gran hermano" ez dut ia ikusi.

-Liburu bat.

Irakurle txarra naiz. Irakurri ditudan azkenak Txalaparta bildumakoak dira.

-Filme bat.

Aspaldi zinemara ez naiz joan, ea zinema berria zabalitzen dutenean joaten naizen.

-Gustuko abestia?

Nere herriko neskatxa maite.

-Soinu bat.

Dultzainarena eta atabalarena.


-Janari bat.

Denak.

-Ura ala...

Ardoa.

asirauto



Bigarren eskuko autoetan aukera zabala



Mugitegi industrialdea, URRETXU


Telf. eta faxa: 943 72 59 22

Mugikorra: 659 67 89 79

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHO ISOLATZAILEAK

ZERBITZUA - KALITATEA - BERMEA

BRINKOLA



PVC eta aluminiozko leihoetan nahi adina aukera, baita egur tonuak imitatzen dituztenak ere
AENOR ziurtagiria, MAPFRE aseguruia eta PERFET 10 bermea ditugu: lan onaren bereizle argiak

Tailerra: Legazpi-Zumarraga errepidea z/g

☎ 943 73 37 00

Denda: Artiz kalea (Orbegozoko aldapan)

☎ 943 72 64 53